

Euskadin duen lidergoa indartu du, seihilekoa amaitzean **Etxe eta Bizitza Arriskuko** negozio bolumenean **lider** baitzen

Kutxabank segurosek prima berrien produkzioa %18 handitu du

- **Ehorzketa-aseguruen jarduerak izan du igoera nabarmena, %24koa**
- **‘Online’ aseguruaren salmentak iaz garai bereko formalizazioak hirukoiztu ditu**

2019ko abuztuaren 29an. Kutxabank Segurosek hazkunde trinkoarekin hasi du urtea, erakundeak jarduera honen alde egin duen apustua berretsiz. Bilakaera positiboa **produkzio berrian** oinarritu da, epealdi honetan **75.000 poliza berri** sinatu baitira, eta produkzio berriko primak **%18,36**.

Honela, konpainiak kudeatzen duen **prima bolumen osoa 120 milioi** eurora arte hazi zen ekainaren amaieran, iaz garai berean baino **%4 gehiago**.

Komerzializazioa **auto aseguruaren** poliza berrien kontratazioa **%30** hazi izanean oinarritu da, bai eta **ehorzketa aseguruaren %23,8ko** hazkundean ere. Halaber, **etxebizitzako** eta **bizitza arriskuko** poliza berrien primak hurrenez-hurren **%7** eta **%12** hazi dira.

Enpresen eta **etxebizitzaren sustaipeneko aseguruaren** jarduerak ere bilakaera positibo garrantzitsua izan du, alor hauetan bietan izan den jarduera handiagoarengatik. Horrela, **prima berrien** sinadurak **%67ra** arte igo dira, eta **%15,5** kudeatutako bolumena.

Datu hauek Kutxabank Seguros **Euskadiko aseguruaren alorreko buru** mantentzen dute, bertan **lider baita etxebizitzako eta bizitza arriskuko** negozio-bolumenean, bai eta **ehorzketa** aseguruaren negozio berriko primetan ere.

Bilakaera positiboa izan duen alorretako bat **kanal teknologikoen** bidez komertzializatutako aseguruaren gertatu da. ‘Online’ negozioak hirukoiztu egin ditu iaz garai berean sinaturiko formalizazioak, web-orriaren bidez 6.000 poliza baino gehiago sinatu baitira.

Honela, aseguruaren negozioak finantza Taldearen emaitzetan duen ekarpenaren garrantzia geroz eta handiagoa da. Seihilekoa amaitzean, polizen **stocka 900.000tik gorakoa** zen, eta jarduera honek **74,6 milioiko** irabaziak sortu zituen Kutxabanken, 2018. urtean baino **%9** gehiago.